



ZERBITZU OROKORRETAKO ZERBITZUA  
KONTABILITATEA (IDAZKARITZA TEKNIKOA)

**Diputatuen Kontseiluak, honako erabaki hau hartu du 2020ko urtarrilaren 21ean:**

**El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 21 de enero de 2020:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak bulegoko altzariak, mahaiaik, armairuak, bionboak, aulkiak eta osagarriak behar dituzten bulegoak ditu.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene oficinas que requieren mobiliario de oficina, mesas, armarios, biombos, sillas y complementos.

Altzariei dagokienez (mahaiaik, armairuak eta bionboak), bulego gehienak Rever de Laster serieko altzariz hornituta daude, eta maiz horrelako elementuak hornitu behar dira postu gehigarrietarako edo hondatutako altzari zaharrak birjartzeko; horrenbestez, bulegoen estetika mantentzearen, altzari berriek jatorrizkoen ahalik eta antzekoenak izan behar dute, bai lineei dagokienez, bai akabera eta koloreei dagokienez.

En cuanto al mobiliario (mesas, armarios y biombos), la mayoría de las oficinas están amuebladas con la serie Rever de Laster y con alguna frecuencia es necesario suministrar elementos de este tipo para puestos adicionales o para reponer muebles viejos deteriorados y con objeto de mantener la concordancia estética de las oficinas, los nuevos muebles deben ser lo más similares posible a los originales, tanto en sus líneas como en sus acabados y colores.

Aulkiei dagokienez, bulegoen beharrei erantzuteko beharrezkoa da ere unean uneko hornidura; beraz, hornidurarekin jarraitzea ahalbidetuko digun kontratu bat behar dugu. Kasu honetan, aulkiek eragin txikiagoa dute bulegoen estetikan, eta, ondorioz, ez da beharrezkoa gainerako altzarietan eskatu behar diren linea baldintzatzaileak ezartzea.

En cuanto a las sillas, también es necesario el suministro puntual para atender las necesidades de las oficinas, por lo que es preciso contar con un contrato que nos permita la continuidad del suministro. En este caso, su incidencia en la estética de las oficinas es menor, por lo que no es necesario establecer los condicionantes de línea que sí deben exigirse en el resto del mobiliario.

Egungo hornidura kontratua amaitzeaz dagoenez, eta bulegoko altzariak hornitzeko beharri modu globalean eta ez zatikatuan erantzuten jarraitu ahal izateko, Gobernantza Departamentuko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak beste espediente bat izapidetzea proposatzen du, esparru akordio gisa, indarrean dagoen bitartean sortzen diren behar zehatzetarako prezioak finkatzea ahalbidetuko duten formulak ezarri.

Dado que el actual contrato de suministro está próximo a su finalización, y con el objetivo de poder seguir respondiendo globalmente y de manera no fragmentaria a la necesidad de proveerse de mobiliario de oficina, desde el Servicio de Servicios Generales del Departamento de Gobernantza se propone tramitar un nuevo expediente, a modo de acuerdo marco, estableciéndose fórmulas que permitan fijar los precios para las necesidades concretas que vayan surgiendo a lo largo de la vigencia del acuerdo marco.

Kontratazioaren xedea 2 sortatan banatuta dago: lehenengoa, mahaiei, armairuei eta osagarriei dagokiena eta, bigarrena, aulkiei dagokiena.

El objeto de contratación aparece dividido en 2 lotes, el primero referido a mesas, armarios y complementos, y el segundo referido a sillas.

Adjudikazio irizpideei dagokienez, prezioaz gain, kontratatutako xedearekin zerikusi zuzena duten irizpideak hartuko dira kontuan, hala nola altzarien ergonomia, kalitatea eta ezaugarri teknikoak eta estetikoak, baita saldu osteko zerbitzua ere.

En cuanto a los criterios de adjudicación, además del precio, se opta por aquellos vinculados directamente al objeto contratado como son la ergonomía, calidad y características técnicas y estética del mobiliario, así como el servicio post-venta.

Hornidurak departamentu bakoitzak bere garaian dituen beharren arabera egingo direnez, kopuruak eta, beraz, agirietan adierazten den gastuaren zenbatekoa

Dado que los suministros se realizarán en función de las necesidades que cada departamento tenga en su momento, las cantidades y, por tanto el importe de

gutxi gorabeherakoak dira. Kalkulua merkatuko prezio unitarioen eta etorkizuneko erosketa zenbatespenaren arabera egin da. Proposamenaren arabera, kontratuaren balio zenbatetsia 892.562 euro da, eta, hasieran, hiru urteko iraupena izango du; prezio horretan sartuko dira egon daitezkeen luzapenak (urtebeteko 3, gehienez) eta egin daitezkeen aldaketak (gehienez ere % 20koak), departamentuen altzari eskarian gertatutako desbideratzeengatik.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 219. artikuluan xedatutakoaren arabera, akordio honetarako iraunaldi luzeagoa finkatzeko beharra justifikatu da memorian.

Horiek horrela, Diputatuen Kontseiluak, Gobernantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

### ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.-** Kontratazio espediente hau onartzea: bulego altzarien hornidura kontratatzeko esparru akordioa burutzekoa, prozedura irekia eta tramitazio arrunta erabiliz; hasieran hiru urteko iraupenarekin eta beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin (X19031 espediente).

Esparru akordioaren balio zenbatetsia honako hau da: 892.562 euro.

**Bigarren.-** Onartzea esparru akordio hau arautuko duten administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren agiriak.

**Hirugarren.-** Ahalmena ematea Gobernantza Departamentuko foru diputatuari: beharrezkoak diren izapideen ondoren, esparru akordioa sinatzeko, formalizatzeko eta, hala balegokio, luzatzeko; eta kontratua zuzen gauzatzeko beharrezkoak diren egintza, erabaki eta ebazpenak hartzeko.

**Laugarren.-** Ahalmena ematea Gobernantza Departamentuko foru diputatuari, esparru akordio honetan oinarritutako kontratuak adjudikatzeko eta dagokien gastua baimentzeko, behin egiaztatzen denean kreditu egokia eta nahikoa dagoela dagozkien ekitaldietako aurrekontuetan.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Erabaki horren aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN,

gasto que se indican en los pliegos son estimativos. El cálculo se ha realizado en base a los precios unitarios de mercado y a la estimación de compra futura. De conformidad con la propuesta, el valor estimado del contrato, con una duración inicial de tres años, alcanza la cifra de 892.562 euros, incluyendo las eventuales prórrogas (hasta 3 de un año cada una) y posibles modificaciones, hasta un máximo de un 20 % por desviaciones en la demanda de mobiliario por los departamentos.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 219 de la Ley de Contratos del Sector Público, en la memoria se ha justificado la necesidad de fijar una duración superior para este acuerdo.

En su virtud, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Gobernanza, previa deliberación,

### ACUERDA

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación, por el procedimiento abierto y de tramitación ordinaria, para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de mobiliario de oficina, que tendrá una duración inicial de tres años, prorrogable por tres años más (expediente X19031).

El valor estimado del acuerdo marco es de 892.562 euros.

**Segundo.-** Aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas que regirán el acuerdo marco.

**Tercero.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Gobernanza para que, previos los trámites oportunos, concluya este acuerdo marco, lo formalice, lo prorrogue en su caso, y para que adopte cuantos actos, decisiones y resoluciones sean necesarios para su correcta ejecución.

**Cuarto.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Gobernanza para la adjudicación y autorización del gasto correspondiente a los contratos basados en el presente acuerdo marco, una vez comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos de los ejercicios respectivos.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del



jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsua aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoan agiriaren aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsuotarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 egun balioduneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren edo bereziaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

**Jakin dezazun eta dagozkion  
ondorioak izan ditzan igortzen dizut hau.**

**Donostia, 2020ko urtarrilaren 24a**

día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, EL RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**Lo que le traslado a Vd. para su  
conocimiento y efectos.**

**San Sebastián, 24 de enero de 2020.**

**Departamentuko idazkari teknikoa / El secretario técnico del Departamento,**

**Sin. / Fdo.: Alfonso Acarreta Rodríguez**



